

Euskaltzaindia

ERROZ AIZKORBE, Iñaki
Paz de Ziganda ikastolako zuzendaria

Arratsaldeon.

Gure Ikastolak, *Nafarroa Oinez* 2010k, Euskaltzaindiarekin batera antolatzen duen ekitaldi honetara ongi etorriak izan zaitezte.

Hiruzpalau aste besterik ez direnean falta *Nafarroa Oinez* 2010a ospatzeko atsegin handiz hartzen ditugu gaurko gonbidatuak. Ohore handia da guretzat Euskaltzaindiko ordezkariak gurekin izatea eta baita ere ikastole-tako ordezkariak, familia eta bestelakoak, ongietorriak denak.

*Nafarroa Oinez*ak aurten helburu bikoitza duela esan daiteke, asko labur-bilduz. Ikastolak 40 urte bete ditu aurten eta hasiera-hasieratik dokumentazio eta promozio ezberdinetan batxilergoa sortzearen ideia gure kooperatibaren nahia izan da. Arrazoi ezberdinak direla eta, beste lehentasun batzuei ekin behar izan diogu iraganean eta orain momentua iritsi dela uste dugu.

Hauxe da, beraz, helburu zehatza: *batxilergoa sortzea*, 16-18 adin tartetara horretan ere ikasleek ikastolan ikasten jarraitzeko aukera izan dezaten; aukera hau ez da bakarrik guretzat izango; beste ikastola eta eskoletako ikasleriarentzat ere irekia izanen da.

Bigarrenik, proiektu zehatz honetatik haratago doan helburua du *Nafarroa Oinez* festak: gizartean eragin nahi dugu, euskararen alde. *Euskara guretzat atera eta kalean erabilia izatea. Euskeraz bizirik nahi dugu.* 1991ko *Nafarroa Oinez*

rroa Oinez **Euskaraz bizi** lemapean antolatu genuen orain dela 19 urte, Jose Luis Gorostidiren zuzendaritzapean, eta oraindik ere hauxe jarraitzen du gure ardatza izaten. *Euskara ardatz duen proiektu eleanitza* da gurea. Mundu bat da ikastola mundura begira...!

Munduz mundu, mendez mende esamoldearekin **EUSKARAK KULTUR ONDARE GISA DUEN BALIOA** azpimarratu nahi izan dugu, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo.

Munduz mundu esamoldearekin gure identitate propioa izatea, gure kasuan euskalduna, eta mundura zabalik egotea erabat bateragarria direla adierazi nahi dugu.

Eta testuinguru honetan kokatzen dugu ere gaurko ekitaldia:

3 hizlari ditugu:

- Patxi Salaberri euskaltzain osoa eta ikastolako guraso ohia, Iruñerriko euskararen ezaugarrietaz arituko da.
- Jarraian Patxi Zabaletak hartuko du hitza eta hil berri den Jorge Cortes Izal euskaltzalearen ibilbideaz hitz egingo du, haren ibilbide berri-tzaileaz arituko da.
- Momentu honetan Ikastolako abesbatzak *Nire herriko neskatxa maite* kanta interpretatuko du.
- Ondoren, Iñaki Etxezarreta jaunak, ikastolen izenean, *Ikastolen mugimendua, dabilen herria* liburuaren gorabeheren berri emango digu.
- Jarraian *Eperrak* izeneko kanta ospetsuaz gozatzeko aukera izango dugu eta, azkenik, *agurra* Andres Urrutia euskaltzainburuarena izango da.

Urriaren 17an, euskararen alde, danok Atarrabiara!